

Kaixo lagunok:

Otsaila honetan Jose Luis de la Mataren heriotzaren **X. URTEURRENA** beteko da. Eta, halere, bere ondarea, bere lan itzelaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslektzat dugu; sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan berak zuen harremanak eraiki eta zaintzeko era erreferentzi etikotzat dugu. Jose Luis eta, jakina, Teresa Gilek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dituzte, Historiatik gure izatearen historiara.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**, hain esanguratsua izango den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATAENEA** egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 21ean, igandean, goizeko 11etan.**



2015-2016ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko **Izargain-DelaMataren Eskolan** garatzen ari garen **8. www.Mintegiarekin.**





Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkira eramango gaitu disfrutatzen. Guztion artean, **Pablo Larraín** zuzendari eta gidoigilearen “**El club**” antzezlanari bizitza emango diogu. Norberak bere ekintzen ondorioak bere gain hartzeari buruzko gaia aztertzen du gidoi honek. Gure gorputzarekin, ahotsarekin, dekoratuekin, musikarekin, harremanekin, mugimenduarekin... egingo dugu.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkari** bat egingo dugu. Bazkarira geratu nahi duzuenok, mesedez, bidali erantzuna e-mail honetara **otsailaren 19a, ostirala, baino lehen: ulumago@hotmail.com**.

Areson ikusi arte, har itzazue gure agurra eta besarkada.

DE LA MATAENEA
Izargain-Areso
2016ko otsailan



Antzezlan
EL CLUB
Pablo Larraín